



## PRENTSARAKO OHARRA

18/10/03

### **Batzar Nagusietako Presidenteak, OLBEren denporaldiko sarrera pakete bat emon deutse Bizkaiko kultur erakundeei**

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak, OLBEren denporaldirako sarrera moltsoa emon deutse Bizkaiko hainbat kultur erakunderen ordezkari. Erakunde horreen artean Bizkaiko Abesbatzen Federazioa, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, Euskal Antzezleen Batasuna, Euskadiko Musika Eskolen Alkartea eta Gazteriaren Euskal Kontsejua (EGK) dagoz.

Erakunde bakoxtaren barruan sarreren banaketea zozketa bitartez egiten da batez be. Euskadiko Musika Eskolen Alkartearen kasuan, sarea osatzen dauen 66 eskola bakoxtak sarrera bi jasoko ditu; aldi berean, sarrera horreek eskola bakoxteko ikasleen artean zozketatuko dira.

Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antzeko zeozer egiten dau; zozketea abesbatza guztien artean egiten da, “aurrekoren batean sarrerak jaso dituen abesbatzak izan ezik”, Inés Fernández presidenteak azaldu dauen moduan.

Sarrerak banatu ostean, Euskal Antzezleen Batasunak emailez bialtzen deutseez kontzertuen egunak eta operak bere bazkide guztiei. “Nire asmo pertsonala, antzezle bakoxtari sarrera bakarra emotea da, esperientzia horregaz ahalik eta persona gehienek gozau ahal daien”, adierazo dau Miriam Martínek.

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak, bere aldetik, iragarki bat jarten dau bere webgunean, interesauta dagozan personek sarrerak jasoteko aukerea izan daien. Jon Gaminde federazioaren koordinatzaileak argitu dauenez, “interesak sarrera kopurua gaintitzen badau, zozketea egingo da”.

Gazteriaren Euskal Kontsejuaren kasuan, Amaia Olabe presidenteak esan dauenez, “talde teknikoa eta Batzorde Iraunkorra osatzen daben persona guztiak zozketetatik kanpo geratuko dira”. EGK osatzen daben 57 alkarteen artean zozketatzeaz gain, erakundeak sare sozialetan edo bere webgunearen bitartez be egin ditu zozketak. Behin baino gehiagotan, ganera, EGK zozketez baliau da bere jarduerak edo egitasmoak sustatzeko.

OLBEk Batzar Nagusien esku jarri ebazan 300 sarrerak aitatutako bost erakundeei emonez, Bizkaiko Batzar Nagusiek Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen beharra bultzatu gura dau eta, bide batez, Lurraldeko antzezle, abesbatzetako kide, dantzari eta musika eskolako ikasle gazteen artean opera sustatu.

NOTA DE PRENSA

03/10/2018

## **La Presidente de las Juntas Generales entrega a entidades culturales de Bizkaia un paquete de entradas para la temporada de la ABAO**

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha hecho entrega esta mañana de un paquete de entradas para la temporada de la ABAO a representantes de distintas entidades culturales de Bizkaia, entre las que se encuentra la Federación de Coros de Bizkaia, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, la Unión de Actores Vascos, la Asociación de Escuelas de Música del País Vasco y el Consejo Vasco de la Juventud (EGK).

El reparto de entradas dentro de cada entidad se hace, principalmente, a través de un sorteo. En el caso de la Asociación de Escuelas de Música del País Vasco, cada una de las 66 escuelas que conforman la red recibe dos entradas; esas entradas a su vez las sortean entre los alumnos y alumnas de cada escuela.

La Federación de Coros de Bizkaia sigue un procedimiento similar; el sorteo se realiza entre todos los conjuntos corales, “a excepción del coro que ya se haya beneficiado de estas entradas en ocasiones anteriores”, tal y como explica su presidenta, Inés Fernández.

Una vez se ha efectuado la entrega de entradas, la Unión de Actores Vascos procede a mandar por email las fechas y las óperas disponibles a toda la afiliación. “Tengo el empeño personal de dar a cada actor y actriz una única entrada para que puedan disfrutar de esta experiencia el mayor número de personas”, manifiesta Miriam Martín.

Por su parte, la Bizkaiko Dantzarien Biltzarra opta por publicar un anuncio en la web a fin de que las personas interesadas puedan disfrutar de las entradas. Jon Gaminde, coordinador de la federación, aclara que “en caso de que el interés sobrepase el número de entradas, se realiza un sorteo”.

En el caso del Consejo Vasco de la Juventud su presidenta Amaia Olabe asegura que “tanto las personas que forman el equipo técnico como las que forman la Comisión Permanente quedan excluidas de los sorteos”. Además de sortearlas entre las 57 asociaciones que conforman la EGK, la entidad también ha realizado sorteos por redes sociales o a través de su página web. En alguna que otra ocasión, además, la EGK se ha apoyado en los sorteos para fomentar actividades o proyectos propios.

Con la entrega de las 300 entradas que la ABAO puso a disposición de las Juntas entre las cinco entidades citadas, el Parlamento de Bizkaia busca apoyar la labor de la Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera, además de promocionar la ópera entre los jóvenes actores, coralistas, dantzaris y alumnos y alumnas de las escuelas de música del Territorio.